

Saharako egarria asetzeko, emakumeek dute giltza

Jakina da gizakiok eta izaki bizidunok bizitzeko nahitaezko dugula ura. Nazio Batuen Erakundeak ere gizaki guztiok ura izateko dugun eskubidea txertatu du bere oinarrietan. Baina, nola bizi dute eskubide hori, esaterako, Hamadako desertu idorrean bizi direnek? Saharako errefuxiatu kanpamentuetan kalitatezko ura lortzeko zailtasunek erronka bihurtu dute herritar guztiek urerako sarbidea bermatua izatea. Horretarako laguntza lanean dihardu Arabako SEADen Lagunen Elkartek.



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIAK: ARABAKO SEAD-EN L. E.

Elmaa: Hasanieraz, sahararren hizkuntzan, ura. Garrantzia bereziko hitza da elmaa Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan. Udan 45 graduko tenperatura jasaten duten eremu lehorrean, ez da gutxiagorako. 40 urte baino gehiago daramatzate 165.000 saharar inguruk Hamadako basamortuan sortutako kanpamentuetan bizirautean, euren herrira noiz bueltatuko zain. Erresistentziaren ikur da sahararren borroka, eta erresistentzia modu bihurtzen da errefuxiatuen eguneroko bizitza kanpamentuetan.

1975ean okupatu zuen Marokok ordu arte Espainiaren kolonia zen Mendebaldeko Sahara, *Martxa Berdea* bezala ezaguna den inbasioaren bidez. Gerra hasi, eta milaka herritarrek beren etxetatik ihes egin behar izan zuten, ustez denbora tarte txikia izango zen aldi baterako. “Gerratik ihesean zihoazela, ura zegoen lekurantz joan ziren errefuxiatu sahararrak kanpamentuak ezartzeko”, azaldu digu Arabako SEADen (Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa) Lagunen Elkarteko kide Geert Demonek.

Izan ere, ur poltsa handiak daude Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetako

lurraren azpian. Hasierako urteetan, errefuxiatuek eurek eskuz egindako putzu probisionaletatik ateratzen zuten ura, familia-putzuetatik. 1994an ordea, euriteek uholdeak eragin, eta saneamendu sistema egokirik ez zegoenez, urak kutsatu eta kolera izurritea eragin zuen El Aaiunen. Autoritate sahararrek familia-putzuak itxi eta uraren kudeaketa antolatzeari ekin zioten.

Ur fosila basamortuaren azpian

Urez hornitzeko egun darabilten sistema konplexua da. Ura herriguneetatik kanpo dauden ehun metro inguruko sakonerako putzuetatik ateratzen dute. “Ur fosila da kanpamentuen azpian dagoena, duela milaka urte pilatuta dagoena. Ur fosilak esan nahi du ateratzen den kantitatea ez dela inoiz bueltatuko, petroleoa bezala da”. Dena den, segituan azpimarratu du Demonek milaka urterarako ur kopurua dagoela kanpamentuen azpian.

Zulaketetatik lortzen duten uraren kalitatea, hala ere, ez da guztiz ona: “Gatz kopuru handiak ditu, eta baita nitratoenak ere”. Horregatik, ura tratatzeko osmosi plantak eraiki dituzte eta kloratze

sistema ezarri. “Instalakuntza horiek ez dute gaitasun nahikoa kanpamentuetako biztanle guztiei ur tratatua emateko, ordea. Horregatik, zenbait *willayatan* (kanpamentutan) txandakatu egiten dute: denbora tarte batean ur tratatua, beste tarte batean tratatu gabekoa”, dio ki-deak. Dajlako willayan, adibidez, tratatu gabeko ura soilik hartzen dute, osmosi plantarik ez dutelako.

Behin ura erauzita eta zenbait kasutan plantetan tratatua izan ondoren, nola egiten dute banaketa? Bi modu daukate: zenbait kanpamentutan zisterna-kamioien bitartez, eta beste zenbaitetan hodi sarearekin. Kamioiek kanpamentuen kanpoaldeko puntuetan jasotzen dute ura eta errepide ondoan familiek pilatzen dituzten deposituetan deskargatzen dute, auzo bakoitzeko ordezkariaren —beti emakumezko bat— gidaritza pean. Hoditeria bidezko ur banaketa sarea ere ez da etxe bakoitzera iristen: iturri komunitarioak daude, eta auzo bakoitzeko ordezkaria da iturriari tutu malgua erantsi eta familien deposituok betetzeaz arduratzen dena. “40 urteren ondoren oso ongi antolatuta dute eta oso ohituta daude banaketara”, dio Geertek.



Kanpamentuetako bilkura batean, uraren kudeaketa sistema ilustratzen duten afixak eskuetan dituztela.

Emakume sahararra, uraren banaketan arduradun

Ura izateko eskubidea denena bada ere, Saharako kanpamentuetan emakumeak dira eskubide horren erantzule. "Familiako betebeharrak dituen emakume bakoitzak metro kubo bat ur jasotzeko eskubidea dauka. Berdin dio emakumea ezkondua, bananduta edo dibortziatuta dagoen", dio Geertek. Dena dela, banaketa ofizial horren ondoren familia eta bizilagunen arteko elkartasunaren bidez uraren nolabaiteko birbanaketa

egiten da, familia bakoitzeko beharren arabera.

Uraren banaketaren antolakuntzan ere emakumeak dira protagonista. *Daira* bakoitzak –willayaren barruan banatzen diren hiriguneak dira dairak– bere Uraren Komitea dauka, eta denak emakumezkoak dira komite horietan: daira bakoitzeko lau auzoetako ordezkariak, lehendakariak eta idazkariak osatzen dituzte. Uraren eskualdeko zuzendaritzan eta, maila nazionalan, Uraren eta Ingarumenaren Ministerioan emaku-

meen presentzia txikiagoa da, katean gora egin ahala gizonezkoak nagusitzen baitira.

Emakumeen komiteetako rol garrantzitsu horren inguruan galdetuta, uraren gaian ez ezik gizartearen antolaketa osoan nabarmentzen dela kontatu digute arabar aktibistek: "Bestelako komiteak ere badaude, elikagaiena edota hainbat zerbitzuren adibidez, eta horietan ere emakumeak dira nagusi. Beraiek daukate kanpamentuetan zer eta nola banatzen denaren kontrola, eta

Tokikoa kudeatzen dugu, globalean pentsatzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak planeta babesteko eta pertsonen ongizatea bermatzeko lan egiten du, **Garapen Iraunkorreko Helburuen** mandatu orokorrari jarraiki, bereziki, seigarrenari: guztiontzako ur garbia eta saneamendua.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorcioeaguas.eus





Ur deposituetara iristeko tutu malgua emakumeak izan ohi du eta ur banaketa antolatzeko komiteetan ere emakumezkoak dira nagusi.

beraiek arduratzen dira guztiengana iristean”, dio Usune Zuazo elkarteko kideak. Izan ere, emakumeak izan ziren kanpamentuak eraiki eta bertako gizar-tea antolatu zutenak, eta gerra ondoren gizonezkoak bueltatu zirenean rolen eta funtzioen banaketa berria gertatu bazen ere, emakume sahararrak bertako gizar-tean paper oso garrantzitsua mantendu duela nabarmendu dute denek.

Arabako SEADen Lagunen Elkartea eta uraren proiektua

“SEADeko gobernuaren lana babestea eta herri sahararraren autodeterminazio eskubidearen defentsa egitea da gure lana, besteak beste”. Raquel Calvo elkarteko kidearen hitzak dira. Taldea-

ren 30 urteko ibilbidean perspektiba horrekin proiektu ugari jarri dituzte martxan, eta horietako bat da urarena.

Uraren banaketak bere arazoak izanda ere, gutxi gorabehera ongi egiten zela ikusi zuten elkarteko kideek, baina kateko azken puntuan huts egiten zuten: “Familien metro kubikoko deposituek arazo handiak zituzten: zink galbanizatuzkoak ziren eta oso zaharkituak zeuden, herdoilduta”, azaldu du Geertek. Herdoilak depositu asko zulatu zituen eta ondorioz ura galdu eta honen kalitatea ere kalte egiten zuten. Eusko Jaurlaritzari deposituak aldatzeko proiektua aurkeztu eta diru-laguntza eskatu zuten 2015ean: jasotako laguntzarekin ia 3.000 polietileno-zko depositu berri eta horiei altura

‘SAHARAZ BLAI’

Saharaz Blai bideo lehiaketa antolatu berri du Arabako SEADen Lagunen Elkarteak. Euskal Herriko eta Sahararako errefuxiatu kanpamentuetako gazteak uraren gaineko hausnarke-ta egitera bultzatzea izan du helburu lehiaketak: “Zein harreman dugu urarekin? Ba al dakigu nola eta zein baldintzatan iristen den gure etxetara? Nork kudeatzen du? Zer gertatzen da isuri kutsatzaileekin?”. Galdera horiek planteatu zizkieten parte-hartzaileei elkartekoek.

Daniel Bengoechea de la Cruz eta Oihane Alonso Escudero lehiaketa-ko irabazleek Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan ura kudeatzen duten emakumeen inguruan dokumental labor bat grabatzeko aukera izanen dute orain. Elena Molina dokumentalistaren gidaritzapean eta EFA Abidin Kaid Saleh kanpamentuetako zinema eskolako ikasleekin batera eginen dute lan gazteek esperientzia aberats horretan.

emateko euskarriak erosi ahal izan ziztuen SEADeko gobernuak.

Urgentziaz aldatu beharreko deposituen erdiak aldatzea lortu zuten lehen proiektu hartan, eta 2017an proiektuaren bigarren zatia onartu zuten Eusko Jaurlaritzak: beste 1.700 depositu eta euskarri aldatuko dituzte aurretan. Horrez gain, proiektuaren barruan zisterna-kamioi bat eta horien konponketarako piezak ere bidaliko dituzte kanpamentuetara. ■



50 urte ura botilaratzen

Beteluren ur minerala inguru natural batean sortzen da, Aralar mendilerroaren oinean. Kalitate handikoa eta garbia izanik, tratamendurik gabe ontziratzen da bere propietateak mantentzeko, diuretikoak baita, digestio onekoa eta lasaigarria.

Ur honek dituen osagai eta propietateak bere horretan mantentzen dira, eta bereak dituen mineralai esker edan erraza da, zapore berezi eta atseginekoa.



Donostia-Iruñea errepedea · 81890 Betelu (Nafarroa)

Tel.: 948 513 157 · www.betelu.com

